

Donostian, 2023ko maiatzaren 26an

Gurasoak, agur:

2023-2024 ikasturterako liburuak eskuratzeko ikastolak abian jarriko duen prozeduraren berri ematera gatozkizue.

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, hainbat liburu maileguan lortzeko aukera eskainiko dizuegu eta gainontzekoak ere ikastolaren bitartez erosi ahal izango dituzue, bertan eskaera eginez. Horretarako jarraibideak eta hainbat argibide azaltzen dizkizuegu segidan.

MAILEGU ZERBITZUA. ARGIBIDEAK

Mailegu zerbitzuarekin **helburu hirukoitza daukagu:**

- Familiei ikasturte hasierak eskatzen dien aurrekontua arintzea.
- Ikasleak materialen kontserbazioan eta zaintzan ohitzea.
- Inguruarekiko errespetuan eta kontsumo arduratsuan heztea.

Maileguan uzten diren liburuak beheko taulan agertzen zaizkizue. Sistema honek familiei 25 eta 54 euroen arteko aurrezpena ekartzen dizue, ikasmilaren arabera.

IKASMAILA	MAILEGUAN UZTEN DIREN LIBURUAK	AURREZPENA
DBH 1	DBH 1 EKI - LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA	25 €
DBH 2	DBH 2 EKI - LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA	26 €
DBH 3	DBH 3 EKI - FISIKA-KIMIKA DBH 3 EKI - LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA	54 €
DBH 4	DBH 4 EKI - LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA	27 €

Mailegu sistemak lan eta ardura batzuk dakarzkigu denoi:

- **Idazkariek eta irakasleek** mailako ikasle guztientzat liburuak erosi, identifikazio kodea jarri, banatu, jaso eta gainbegiratuko dituzte, eta horrez gain ordainketa sistema kudeatuko dute.
- **Ikasleek** maileguan hartutako liburuak zainduko dituzte, orrialdeak tolestu eta zimurtu gabe. Bertan ez dute idatziko edota marrazkirik egingo, ezta pegataririk jarriko ere.
- **Gurasoek** maileguko liburu bakoitzeko liburuaren salneurriaren % 33,33a ordainduko duzue. Hain zuzen ere, orriaren azpiko aldean doakizuen liburuaren zerrendan adierazten den kopurua, bertan aurrezpena kontutan hartuta dago eta. Bestetik, komenigarria da ikasmilako **familia guztiak mailegu sisteman parte hartzea**, maileguan eskaintzen diren liburu **guztiak** eskatuz, bestela oso zaila baita ikastolarentzat sistema kudeatzea eta kontrolatzea. Azkenik, seme-alabek ikasturtean zehar liburuak ondo jaso eta zaintzen ari direla gainbegiratuko duzue.

Liburuaren egoera baloratzea:

Ikasturte amaieran guraso elkarteak izendatutako talde batek egingo du liburuaren balorazioa. Liburu bat itzuliko ez balitz edo baldintza onargarrietan ez dagoela baloratuko balitz, salmenta-prezioaren diferentzia ordaindu beharko luke familia horrek.

LIBURU ETA MATERIAL ZERRENDA:

Ikasmaila honi dagokion zerrenda eta eskaerak egiteko azalpenak zirkular honen azpiko aldean aurkituko dituzue eta nahi izanez gero ikastolako web orrian ere bai.

Zerrenda horretan "BERRERABILGARRIA" zutabean "BAI" azaltzen bada, aurreko ikasturtean beste ikasleren batek erabilitakoa liburu eskuratu dezakezuela esan nahi du. "EZ" azaltzen bada, liburu berria eskuratu beharko duzue.

Zerrenda horretan "SALMENTA/MAILEGUA" zutabean "SALMENTA" jartzen duen kasuetan, liburu hori ikastolan salgai egongo da, baina kanpoan eskuratzeko aukera ere izango duzue.

"MAILEGUA" azaltzen bada, esan nahi du ikastolak liburu hori maileguan eskainiko duela. Norbaitek liburu erosi nahiko balu, ikastolatik kanpo eskuratu beharko luke.

"SALMENTA IKASTOLA" jartzen duenean, berriz, liburu hori ikastolaren bidez erosi beharko da, eta horretarako ezinbestekoa da eskaera ikastolan burutzea inprimakia beteaz. Hortaz, derrigorrez ikastolan eskuratu beharreko materiala honoko hau da:

EKI. EUSKARA ETA LITERATURA. DIGITALA

EKI. GIZARTE ZIENTZIAK. DIGITALA

EKI. NATURAREN ZIENTZIAK. DIGITALA

EKI. FRANTSESA. DIGITALA

EKI. ENGLISH DIGITAL WORKBOOK

Liburuez gain, **ikastola-agenda** banatuko diegu ikasle guztiei ikasturteko lehen egunetan, eta erreziro bidez kobratuko zaizue.

LIBURUEN ESKAERA EGITEKO PROZEDURA:

1. Mezu honekin batera doakizuen inprimakia bete **ekainaren 9a** baino lehen. Ikastolak ez ditu bideratuko data honetatik aurrerako eskariak
2. Ikastolan erosi beharreko liburu guztietan BAI sakatuta inprimakia bidali ondoren, zuek emandako helbide elektronikora mezu bat iritsiko zaizue. Bertan agertuko dira zuek eskatutako liburu guztiak, guztira ordaindu beharreko kopuruarekin. **Irailean** ondorengo kontu korrontean egin beharko duzue diru kopuru zehatz horren sarrera:

KUTXABANK ES96 2095 5206 0710 6122 6782

Azalpenean IKASLEAREN IZENA – LIBURUAK - MAILA jarri mesedez.

3. Liburuak irailean banatuko ditugu ikasturte amaierako zirkularrean jakinaraziko zaizuen egun eta orduan. Jaso ahal izateko bankuko ordainagiria aurkeztu beharko duzue.

LIBURU ITZULKETAK:

Ikastolak ez ditu irailaren 15a ondoren itzulketak onartuko.

MESEDEZ, ERRESPETA ITZAZUE EPEAK

Besterik gabe, agur bero bat.

ZUZENDARITZA

LIBURUEN ZERRENDA

DBH 1

IKASTURTEA	IKASMAILA	ARGITALETXEA	LIBURUA	ISBN	BERRERABILGARRIA	SALM/MAILEG	SALNEURRIA
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI. LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA 1 (PACK 3)	978-84-15586-14-2		MAILEGUA	12,65
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	MATEMATIKA DBH 1. Irailean erabakiko dugu				
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI. EUSKARA ETA LITERATURA. DIGITALA DBH 1 (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			SALMENTA IKASTOLA	16,15
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI. GIZARTE ZIENTZIAK. DIGITALA DBH 1 (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			SALMENTA IKASTOLA	16,15
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI. NATURAREN ZIENTZIAK. DIGITALA DBH 1 (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			SALMENTA IKASTOLA	16,15
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI. FRANTSESA. DIGITALA DBH 1 (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			SALMENTA IKASTOLA	13,45
2023/2024	DBH1	IKASELKAR	EKI FICHAS DE ACTIVIDADES. LENGUA GASTELLANA Y LITERATURA 1	978-84-15586-39-5	EZ	SALMENTA	8,42
2023/2024	DBH1	IKASTOLEN ELKARTEA	EKI ENGLISH 1-SUBJECT PROJECTS 1 - Activity book (pack of 3 units)	978-84-15586-33-3	EZ	SALMENTA	37,95
2023/2024	DBH1	IKASTOLEN ELKARTEA	EKI. ENGLISH DIGITAL WORKBOOK (ikastolaren bidez eskuratu behar da)			SALMENTA IKASTOLA	7,90

LIBURU ESKAERA - DBH 1

Ohar honen bertsio elebiduna [bertan](#) duzue irakurgai.
 La versión bilingüe de este documento está disponible [aquí](#)